



IKASTURTE HASIERA, LEHENGO LEPOTIK BURUA

Ikasturtea hasi da, Hezkuntza sailburu berria dugu, EAeko legea garatu behar omen du, ta Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunetik egoeraz egiten dugun irakurketa plazaratu nahi dugu.

1. Sare publikorako plan estrategikoa prestatzen ari den honetan, proposamen batzuk luzatu nahi dizkiogu Hezkuntza Sailari:
 - Sare publikoa sistemaren ardatza izatea, hau da, pribatuko gelak ituntzea soilik eskaintza publikorik ez dagoenean. Honekin batera, plaza publiko berriak sortzeko plana egitea beharrezkoa den lekuetan. Sare pribatuaren gehiegiko presentzia gertatu da sare pribatuaren aldeko hamarkadetako hezkuntza politikei esker.
 - Ikastetxe publikoek langile eta errekurso gehiago behar dituzte, baita azpiegitura eta zerbitzu egokiak ere.
 - Sare publikoan euskara indartu behar da, ikasle guztiei aukera berberak emanez, eta euskara bera kohesio tresna izanez.

2. Eskola publikoa ikasleak euskalduntzeko ezinbesteko tresna bihurtu da (D ereduan 2 urteko ikasleen %98tik zeuden 23/24an) euskalduntzen ez duten eredu finantzaketa etengabe handitzen jarraitzen du Hezkuntza Sailak. Hezkuntza Lege berria benetan betetzeko asmoa badu Sailak, euskalduntzen ez duten ikastetxeei ituna kentzen hasi beharko litzateke. (Sare pribatuaren 2 urtekoen %30 inguru dira A eta B eredukoak)

3. Azken bi urteetan ikasle zaugarrienak modu orekatuan banatzeko ustezko saiakerak ez du fruiturik eman segregazioaren aurka, baina bestelako ondorioak ekarri ditu, besteak beste:
 - a) Gogoko ikastetxean sartzea edo ez baldintzatzen duen neurrian, fidagarritasuna eta objetibitatea galtzen du familien ISEK (Indize SozioEkonomiko Kulturala) ezagutzeko betetzen den inkestak.
 - b) Ixtear zeuden itundutako gela batzuk eskaera faltagatik, zabalik mantendu dira gertuko gela publikoak itxi diren bitartean

4. Hezkuntza sistema dualak (publiko/pribatu itunduak) ikasleen segregazioa sortzen du, eta hori kaltegarria da bai euskalduntzeari baita bizkidetzari begira. Praktika baztertzailak garatzen dituzten zentro horien finantziaketa eten egin behar da, ahalik eta lasterren, eta guztiontzako sarea, sare publikoa, alegia, indartu. Bide horretan, ikastetxe pribatuen publifikazioa erraztea neurri egokia litzateke.

Eibarren, 2024ko urriaren 19an